



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen

Ordenantza

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan enplegu publikora iristea eta zerbitzu-harremana eskuratzea arautuko duten printzipio gidariak xedatzen ditu. Hala, funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko, ezartzen du erabili behar direla berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak (EKren 23.artikulua) eta Legeak berak finkatutako beste printzipio batzuk bermatzen dituzten prozedurak, hala nola:

- Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.
- Gardentasuna.
- Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- Hautaketa-prozesuen edukiaren eta bete beharreko eginkizunen edo lanen arteko egokitasuna.
- Arintasuna, hautaketa-prozesuen objektibotasunari kalterik egin gabe

Bitarteko funtzionarioen hautaketari dagokionez, aipatutako 5/2015 testu bateginaren 10. artikulua adierazten du hautaketa hori prozedura arinen bidez egin beharko dela, betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak errespetatuz.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikulua honako hau ezartzen du:

- Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratuko langileak prozedura bizkorren bidez hautatuko dira, eta prozedura horietan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publizitatea eta lehia askea bermatuko dira.
- Lanpostuak aldi baterako betetzeko, probaldi bat eta, hala badagokio, prestakuntza-aldi bat gainditzea ere eska daiteke.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta aintzat hartuta batik bat Oñatiko Udalaren tamainako toki-administrazio baten aldi baterako kontratazioaren bolumena eta bitarteko izendapenak, beharrezkoa da aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arau argi batzuk ezartzea, zeinek kontratazio horien kudeaketan beharrezkoa den arintasuna izango duten –kalterik egin gabe enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio horiek errespetatzeari–, eta kontratazio horiek kontrolatzeko eta babesteko beharrezkoak diren gardentasun-maila emango duten.

39/2015 legearen VI. Tituluak legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala xedatzen du. Horren baitan, 133 artikulua herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea arautzen du. Horren arabera, administrazio publikoek legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko dute administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Helburua da etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jasotzea puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- Arau hori onestea beharrezko egoki den
- Arauaren helburuak
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik

Udal prozeduren gidaliburuko P006 prozedurak xedatutakoaren arabera, arau proposamenaren ardura duen sailak Administrazio Prozedura Legearen 133. Artikuluak ezartzen dituen sarrera eta lau eremuak jasotzen dituen dokumentua bidaliko dio Udalaren Herritarren Partaidetza eta Komunitate Garapenerako Sailari.

Giza Baliabide eta Antolakuntza teknikariaren proposamena kontuan hartuz, , nik, Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko funtzionamendua arautzeko prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133 artikulua xedatutakoari jarraiki, Udalaren webgunean kontsulta publikorako epea zabaltzeko helburuarekin, hasierako dokumentua publikatzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2023ko otsailaren 23an

Alkateak



Izaro Elorza Arregui